

Ikus-entzunezkoen itzulpengintza euskaraz: bikoizketa lanbide

Beatriz Zabalondo

UPV/EHUko irakaslea

Euskal Telebistarako ikus-entzunezkoen itzulpengintzan bikoizketa izan da itzulpen mota hedatuena oraintsu arte. Lan honetan, euskarazko bikoizketaren lanbidea zer den (edo izan den) azaltzen saiatu da egilea, gaiaren tesuinguratze orokorra eginda: EITBren sorrera, bikoizketa-etxeen hastapenak eta garapena... Euskarazko bikoizketaren faseak eta antolaera nola izan den deskribatzea da artikulu honen muina; halaber, talde-lanaren nondik norakoak eta prozesuan parte hartzen duten profesionalen egitekoak marraztea.

Bikoizketa vs azpidazketa gaiari heldu zaio azken atalean, eta literatura sarri ageri diren argudioak mahairatu dira. Itzulpen mota baten alde eta bestearen aurka egin beharrean, euskal kulturak bikoiztutako, azpidatitako, eta propio euskaraz sortutako ikus-entzunezkoak, hiru motatakoak behar dituela defendatzen du egileak.

GAKO-HITZAK: Bikoizketa euskaraz · Ikus-entzunezkoen itzulpenak · Euskal Irrati Telebista (EITB) · Euskal Herria.

Audiovisual Translation into Basque: The Dubbing Profession

Dubbing has long been the most widely accepted translation practice in the Basque public TV channel ETB. The article attempts to describe the craftsmanship behind dubbing by setting a general frame of reference for the practice analyzed. Hence, the origin of The Basque Broadcasting Corporation (EITB) or the founding and development of the first dubbing companies in the area are considered. The article aims to illustrate the different stages and organization of dubbing practices in the Basque Country. Likewise, the author sketches the idiosyncrasies of team work and tasks undertaken by Basque dubbing professionals.

The final part of the article deals with the pros and cons of dubbing vs. subtitling, and arguments often mentioned within existing literature are put forth. Rather than favoring one translation technique over another, the author argues in favor of a threefold scheme in the case of Basque productions. In that sense, the author maintains that subtitling, dubbing and the production of original versions in Basque language are all essential in the realm of Basque culture.

KEY WORDS: Dubbing into Basque · Audiovisual Translation · Basque Broadcasting Corporation (EITB) · Basque Country.

Jasotze-data: 2012-07-26. *Onartze-data:* 2012-11-12.

Sarrera

Itzulpengintzaz dihardugunean, literatura-itzulpena izan ohi dugu gogoan gehienetan; baita administrazio-alorreko itzulpenak, dibulgaziokoak, eskola-liburuak eta, orobat, eguneroko jardunean sortzen diren beharrei erantzutekoak. Nor edo nor akordatu da hedabideetan erdarazko iturriak gailentzen direla eta usu baliatzen dela itzulpengintza. Halaberrez. Baina itzulpenaren garrantziaz jabetzeko orduan, inor gutxi ohartuko da ikus-entzunezko produktuei dagokienaz. Nahiz eta oso jardura hedatua eta inoizko hartzaile kopuru handiena izan; izan ere, adin eta gizarte-klase guztietako hartzaileek baliatzen baitute egunero-egunero, ia oharkabean (Interneteko lokalizazioei erreparatzea besterik ez dago, edo DVDetarako azpidatzen eta bikoizten diren filmak, bideojokoak, etab.). Munduko edozein tokitako ikusleak eta erabiltzaileak dira ikus-entzunezko itzulpengintzaz baliatzen direnak. Informazio- eta komunikazio-teknologiaren garapenak ere badu zerikusirik horretan: produkzioan ez ezik, baita hedapenean ere; hainbeste arindu eta merkatu dira eta.

Gurean, Euskal Telebistarekin sortutako ikus-entzunezkoetako azpiegituren eta industriaren barruan kokatu behar da ikus-entzunezkoen itzulpengintza ere; lanbidea eta industria izan da. Eta bolumen handiena oraintsu arte bikoizketaren arlokoa izan da. Euskal Telebistari zerbitzua emateko abiatu zen euskarazko bikoizketa, eta euskararen sustapenerako jardura garrantzitsutzat zuten garaiko agintariek. Iñaki Zubizarreta hizkuntzalariak ere sarritan egin du aldarrikapen hori:

(...) euskara biziberritzeko, euskararen erabilera sustatzeko, komunikabideak dira autobidea. Komunikabideak oro har: prentsa, irrati, zine, telebista, Internet... Komunikabideek dute lehentasuna zeregin horretan. Eta komunikabideetan badu bere lekua itzulpenak, leku garrantzitsua eduki ere, batez ere ikus-entzunezkoetan. Eta bikoizketaren inguruan bildu da itzultzaile gehien. (...) Zein da garrantzitsuago, zein eraginkorrago, diputazio-udaletxeetako apaletan gordeko den itzulpena ala milaka laguni iritsiko zaiena egunero-egunero? Bostehun irakurleentzako liburua (barkatu idazleek) ala milaka laguni egunero iritsiko zaien testu bikoiztua? (Zubizarreta, 2007: 44)

Azken urteetan, baina, ETBn asko urritu da bikoizketa-orduen kopurua, eta haurrentzako produktuetara mugatuta dago ia erabat (Zabalondo, 2005b). Euskal Irrati Telebistak 30 urte betetzen ditu aurrean. Bikoizketari dagokionez, bidegurutzetara dagoela irudi du. Iragan denboretako lanbidea hutsean gal ez dadin, hona, jasota gera daitezten, jardunbide horren nondik norakoak.

1. Bikoizketa. Testuinguratzea

Ikus-entzunezko testua aipatzen denean, ikusizko eta entzunezko kanalen euskarrietan igortzen den testu mota ulertu ohi da eta, gainera, mezua eratu eta komunikatzeko, hizkuntzaren kodea ez ezik beste kode batzuk ere baliatzen dituen, hala nola musika eta efektu bereziak, planoak, argazkia, muntaia eta beste. Kode horien guztien bat-egitetik eta elkarrekiko duten eraginean sortzen da ikus-entzunezko testuaren esanahia. Autore asko mintzatu dira ikus-entzunezkoen kode-kanalen inguruan, esate baterako Agost (1999), Casetti eta di Chio (1999), Chaume (2001, 2004) eta Zabalbeascoa (2001). Baina ez da artikulu honen helburua gai horretan sakontzea.

Testuok itzultzeko zein bide erabiltzen den, honela sailkatu ohi dira ikus-entzunezko itzulpenak: bikoizketa, azpidazketa, ahotsa gainjartzea eta interpreta-zioa. Guztietan, jatorrizko testuko irudia bere horretan mantentzen da xede-testuan; aldiz, soinu-banda «aldatu» egiten da: zein itzulpen mota aukeratzen den, modu jakin batean. Esate baterako, bikoizketa aukeratzen bada, jatorrizko hizkuntzako soinu-banda xede-hizkuntzan beren-beregi eratutako beste batez ordezkatu da; azpidatzietan, jatorrizko bertsoaren gainean itzulpena ematen da idatziz, jatorrizko soinua bere horretan mantenduta; ahotsen gainjartzea aukeratzen denean, jatorrizko soinuaren gainean ezartzen da grabatutako ahotsekin osatutako itzulpena —telebistako dokumentaletan oso ohikoa da—. Azkenik, interpretazioa baliatzen denean, jatorrizko soinua entzuten da eta aldibereko itzulpen ahots goran egina —zinema-jaialdietan, ikusi izan da itzulpen mota hau—.

1.1. Ikus-entzunezko itzulpengintza

Irudiak eta soinuak uztartzetik, ahozko eta ikusizko narrazioen bateratzetik, eta ikus-entzunezko hizkuntzaren erabilera berezitik sortzen diren testuei deritzegu ikus-entzunezko, arestian esan dugunez. Testu horiek hizkuntza-estilo berezia izan ohi dute, hainbat adierazpen-kode erabiliz —hizkuntza, musika, planoak, etab.— informazioa bi kanaletatik —ikusizkotik eta entzunezkotik— bideratzen duten testuak baitira. Hain zuzen, berezitasun horiek egiten dute itzulpena ere bestelakoa izatea.

Hona ikus-entzunezkoen itzulpena beste itzulpen mota batzuetatik bereizten duten hainbat ezaugarri:

- a) Ikus-entzunezko testua hainbat sistema semiotikok osatua dago, baina hizkuntzari dagokiona baino ez da itzultzen; gainerako sistemetak zeinuak ez ditu ukitzen itzultzaileak; bere eskumenetik eta lantegitik haratago daude. Horrek, halaber, zenbait muga eta neurriren barruan lan egitera behartzen du itzultzailea, hau da, egokitzapenak egitera. Zentzu horretan, hitz-kateen itzultzaile soila ez eze, itzulpena baliatzen duen egokitzaila edo moldatzailea da ikus-entzunezkoetan aritzen dena.
- b) Gainera, komunikazio-kanal bat baino gehiago (entzunezkoa eta ikusizkoa) eta era askotako seinaleak aldi berean baliatuz (irudiak, testuak, elkarrizketak, musika...) osatutako testuak direnez, jatorrizkoarekin sinkronizazio-lana egitera behartuta dago itzultzailea.
- c) Itzulpenaren azken emaitza ez da soilik itzultzailearen erantzukizuna; ikus-entzunezkoetan kate-lana da nagusi, produktu horien itzulpengintza barne. Azken produktuaren taxueran edo eratze-prozesuan parte hartzen dute itzultzaileak, egokitzailak, bikoizleak, hizkuntza-zuzentzaileak, soinu-teknikariak eta beste kide askok.
- d) Ikus-entzunezko testuetan askotariko egoerak eta ekintza komunikatiboak planteatu ohi dira eta, horiei lotuta, hizkuntza-aldaera eta erregistro ugari onar dezakete. Itzulpena, sinesgarria izango bada, horiek guztiak islatu behar ditu.
- e) Ikus-entzunezko testuak ikusle askorengana iristen dira; profil oso heterogeneoak izan ohi dituzte ikusleak (adin, bizipen, formazio...) eta munduko

bazter ezkutuenetan aurki daitezke. Hizkuntza-komunitate bateko kideak —hiztun gutxiko komunitatea izanik ere— ez daude nahi eta nahi ez lurralde bati lotuta, garai batean pentsa zitekeen bezala. Hartzaille horiek guztiak kontuan hartuta heldu behar zaio itzulpen mota honi.

1.1.1. *Bikoizketa eta beste itzulpen mota batzuk*

Ikus-entzunezko testuen itzulpenean, ikusizko kodeak bere horretan —jatorrizko eran— irauten du, ez du inolako aldaketarik izango. Hizkuntza-kodea itzulzeko eran daude aldeak. Bi era dira nagusi: bikoizketa eta azpidazketa.

a) *Bikoizketa*. Jatorrizko produktuaren soinu-banda xede-hizkuntzan grabatutako soinu-bandak ordezkatzen du. Baina ordezkapen hori muga batzuen barruan egiten da; sinkroniak agintzen eta bideratzen baitu itzulpen-jarduera. Hiru sinkronia mota bereizi ditu Agostek (1999):

- Karakterizazio-sinkronia, alegia, pantailan ikusten den aktorearen irudia eta bikoizleak ematen dion ahotsa ondo egokitzea.
- Eduki-sinkronia, hau da, filmaren argumentuak eta xede-hizkuntzako bertsioak bat etortzea.
- Irudi-sinkronia, esan nahi baita, aktorearen aho-mugimenduak eta entzuten diren soinuak parez pare egokitzea.

Itzultzaile-egokitzailea muga horiek kontuan dituela saiatzen da, bere lana ahalbait naturalena izan dadin eta jatorrizko testua bezain sinesgarria. Bikoizketaren arduradun nagusia bikoizketa-zuzendaria edo aretoko zuzendaria da. Haren aginduetara daude bikoizleak. Zeresan handia dute ahotsa jartzen duten bikoizleek ere, horiek grabatutako lana baita bertsio bikoiztuan geratzen dena eta ikusleek entzuten dutena. Irudi-sinkronizazioan garrantzi handia dute ahots-teknikariek, azken ditzeak euren esku baitaude.

b) *Azpidazketa*. Filmaren jatorrizko bertsioa ematen ari den pantailan, xede-hizkuntzara itzulitako («moldatutako» edo «egokitutako» esan beharko litzateke, zinez) hitzak jartzen dira idatziz. Gutxi gorabehera, idatziz emandako hitzak —itzulpena— entzuten diren jatorrizko bertsioko hitzekin bat datoz.

Itzultzaile-egokitzaileak 35 karaktere inguruko bi lerro ditu jatorrizko bertsioan esaten dena itzultzeko. Sintetizatzen izaten du lan handiena: normalean, ezinezkoa baita esaten den guzti-guztia azpidatzieta ematea (irakurtzen makalago aritzen gara, hitz egiten baino). Azpidatzieta pantailan ageri denarekin sinkronizatuta doanez, laburtu beharra dago filmaren hariari jarraituko bazaio.

Erraz uler daitekeenez, azpidatzieta bi mugak agintzen dute:

- filmaren ekintzak eta elkarrizketak
- irakurketa erosoak (bere batean eginak)

Filmeko protagonisten arteko elkarrizketak dira, nagusiki, azpidatzen direnak. Baina, filmetan, hizkuntza-kodea baliatzen da halaber errotuluetan, bide-seinaleetan, abestietan, prentsako aipuetan, gutun eta oharretan, edo beste

edozein motatako idatzietan... Baldin eta argumentuaren ulermenerako ezinbestekoak badira, horiek ere azpidatzien bidez eman behar izaten dira. Eta normalean ez da arazorik egongo hala egiteko. Salbu eta ahozko jarduna eta idatzitakoren bat aldi berean ematen direnean; denbora-espazio mugarekin egiten du topo horrelakoetan itzultzaileak, eta nahi eta nahi ez erabaki batzuk hartu beharko ditu: batzuetan, elkarrizketak alboratuko ditu, errotuluaren esanahia emateko; beste batzuetan, jatorrizko idatzia bere horretan uztearen aldeko izango da, aktoreen berbaldiak lehenetsita. Filmaren osotasuna kontuan hartuta, eta azpidatzien koherentzia eta kohesioa hautsi gabe, ahalik eta informazio gehien eman behar da, hitz-irudien erritmoari jarraiki eta eroso irakurtzeko moduan, jakina.

c) *Ahotsen gainjartzea*. Ingeleseztan *voice over* esaten zaio. Jatorrizko bertsoa eta itzulitakoa batera ematen dira, baina jatorrizkoa entzuten hasi eta bizpahiru segundora-edo hasten da entzuten bertso itzulia. Jatorrizko bertsoaren soinua jaitsi egiten da eta xede-hizkuntzakoa goratu, ondo eta garbi entzun dadin. Batik bat dokumentaletan aplikatu den itzulpen-eredua izan da hau. Itzulpen mota honetan sinkronia ez da erabatekoa: ez zaio zehatz-mehatz jarraitzen jatorrizko jardunari.

d) *Aldibereko interpretazioa*. Zinema-aretoan film bat ematen ari dira eta, aldi berean, itzultzaile batek, mikrofonoa eskuan, elkarrizketak itzultzen ditu. Normalean, aurrez jasoko du filmaren gidoia eta landuta ekarriko du itzulpena. Jaialdiren baten aitzakian edo bestelako itzulpenik egiteko astirik izan ez denean jo izan da modalitate honetara.

Europa ekialdeko herrialdeetako telebistetan, narratzaile batek kontatu egin ohi du jatorrizko filmean aktoreek elkarrizketa bidez diotena.

e) *Ikus-entzunezko beste itzulpen mota batzuk*. Teknologia berriei irekitako bideetatik ikus-entzunezko produktu berriak hedatu dira merkatuan eta horrek itzulpen mota berriak erakarri ditu. Multimedia deritzen testuak sartzen dira atal honetan, hau da bideojolasak, hiztegiak, softwarea...

Azken urteotan, badira bi itzulpen mota berezi garapen nabarmena izan dutenak: itsuentzako audiodeskripzioa deritzona eta entzumen urriko pertsonentzako azpidatziak.

Testu horiek ere aparteko azterketa eskatzen dute, baina ez dira lan honen helburua eta beude bere horretan.

1.2. Euskarazko bikoizketa

Euskal Herrian, ikus-entzunezkoen itzulpengintza —bikoizketa eta azpidazketa bereziki, lanbide gisa ulertuta— Euskal Telebistaren sorrerari lotuta dago. Zehatz esatera, ETB sortu baino pare bat urte lehenago hasi ziren egiten euskarazko bikoizketaren lehen urratsak.

1.2.1. Euskal Telebistaren sorreraz bi hitz

Euskal Telebistaren sorrera nola izan zen gogoratu aurretik, ezinbestekoa da aipatzea Euskal Herria bi estatutan eta hiru administrazioetan banatuta dagoela eta, politika, ekonomia eta kulturaren beste alor batzuetan gertatu ohi den bezala,

telebistagintzan ere oso ildo desberdinei jarraitu izan zaiela mugaren alde batean eta bestean. Patxi Azpillagak eta Juan Carlos Miguel de Bustosek honela adierazi zuten:

(...) ikus-entzunezko sistemaren gaineko araudiari Euskal Herriaren balizko ikus-entzunezko esparruaren ikuspuntutik begiratuta, lehenik eta behin azpimarratu beharrekoa, zatiketa politikoa bera da. (...) Bi estatuen artean banatuta egoteak (...) ikus-entzunezko sistema arras desberdinen artean banantzen ditu Ipar eta Hego Euskal Herria, Frantziar eta Espainiar estatuen artean, hain zuzen ere. (...) Irrati- eta telebista-sistemen bilakaera, eta hortaz, baita araudi markoena ere, oso ezberdinak izan dira batean eta bestean. (NOR, 2000: 58-59).

Telebistaren hastapenak munduan	
<p>– XX. mendeko lehen eta bigarren hamarkadetan, telebistaren historia irratienarekin uztartuta dago.</p> <p>– 1930eko hamarkadan Erresuma Batuan, Alemanian eta Estatu Batuetan programazio erregularrak hasten dira; Frantziar eta Sobiet Batasunean, probarakoak.</p> <p>– 1936-39ko gerrak eta ondotik ezarritako erregimen frankistak nazioartetik barkatuta utzi zuen Espainia, eta industria eta teknologiaren garapenari dagokionez, zer esanik ez, oso atzeratuta.</p> <p>– Bigarren Mundu Gerrak bazter utzi zituen telebista-emisio erregularrak.</p> <p>– 1946: Erresuma Batuko BBC telebista berriz hasi zen emititzen, ekainean.</p>	
Frantziako estatua	Espainiako estatua
1949: RTF sortu zen (Radiodiffusion-Télévision Française)	
1958: Estatuak produkzioaren, programazioaren eta emisioaren ardura hartu zituen (De Gaulle jenerala estatuburu zela).	1956: TVEren lehen emanaldia.
1964: RTFk ORTF izena hartu zuen (Office de Radio-Télévision Française), eta bigarren kanalak (Antenne 2) emanaldiak hasi zituen.	1965: Bigarren katea sortu zen (UHF). 1966: Fragaren Prentsa Legea kaleratu zen.
1973: France Région 3 izeneko hirugarren kanal publikoa abiatu zen.	1974tik aurrera delegazioetatik, albistegi erregionalak (baita Bilbotik ere). 1975: Franco hil zen. 1977: Lehen hauteskunde demokratikoak.
1982: Ikus-entzunezkoen lege berria indarrean sartu eta HACA sortu zen (Haute Autorité de la Communication Audiovisuelle). 1987: Telebista pribatuak sortu ziren: Canal Plus, La Cinq eta TV6, hurrenez hurren. Gainera, TF1 pribatizatu zuten. 1989: CSA erakundeak (HACAren ordezkoa: Conseil Supérieur de l'Audiovisuel) Antenne 2 eta TF3 kanal publikoentzako zuzendari bakarra izendatu zuen.	1980: Irrati-telebistaren Estatutua kaleratu zuten Espainiako Gortek. 1982: EITB sortu zen eta Estatuak zeukan monopolioa hautsi zen. 1989: FORTA sortu zen (Federación de Organismos de Radio y Televisión Autonómicos).
1992: France Télévision sortu zen, eta ondorioz kanal publikoek izena aldatu zuten: France 2 eta France 3. Gainera, La Cinq desagertu eta haren frekuentzian Arte eta La Cinquième kokatu ziren. TV6k izena eta jabea aldatu zituen: M6. 1996: Plataforma digitalak sortu ziren.	1990: Telebista pribatuaren sorrera (Tele 5 eta Antena 3 eta Canal +E). 1997 rako satellite bidezko telebista (Canal Satélite Digital eta Via Digital) eta kablea ezarriak ziren.
2001: Telebista digitala ezartzeko azterketa, egutegia eta arautegia egiten hasi zen CSA.	2003: Canal Satélite Digital eta Via Digital-ek bat egin zuten: Digital +.
2011ko azaroa: Itzalaldi analogikoa.	2010ko apirila: Itzalaldi analogikoa

I. taula. Artikulugileak atondua. Iturria: Arana, E. (2004).

Ezinbestean, EITBren sorrera Televisión Española¹ eta Hegoaldeko politika-erakundeetara dago lotuta. Gogoratu behar da, halaber, euskarazko telebista-gintzaren historiaurrean (EITB sortu aurrekoan) oso presentzia urria izan zuela euskarak telebistan. Elkarrizketa edo dokumental saio bakanen bat izan ezik, fikziorik, esate baterako, ez zen behin ere egin telebistarako.

Euskal Irrati Telebista herri-erakundea sortzeko legea —5/1982ko Legea— 1982ko maiatzaren 20an onartu zen aho batez Eusko Legebiltzarrean, eta haren Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 1982ko ekainaren 30ean. Egun haietan, Karlos Garaikoetxea zen Eusko Jaurlaritzako lehendakari, Ramon Labaien zen Kultura sailburua eta Juan Jose Pujana, Eusko Legebiltzarreko lehendakaria. Autonomia Estatutuaren 19. artikuluan dago oinarrituta Euskal Herriko gizarte-komunikabideen legeria, eta bertan aitortzen zaion eskumenaz baliatuta sortu zen Euskal Autonomia Erkidegoko telebista. 5/1982ko Legearen atarikoan jasota daude EITB herri erakundearen sorburuko helburu nagusiak: komunitaterako informazio-tresna nagusia atontzea eta euskara eta euskal kultura suspertu eta zabaltzeko baliabide izatea:

(...) Lege honen gai diren gizarte-adierazpideak herritar euskaldunak argipide eta politikan eskuhartzeko lehen-lehen mailako bide direnez eratzten dira, eta bai hezkuntzarekiko eta euskal kulturaren suztapen eta zabalkundearekiko gure erapidetzaren oinarritzko lankidetasun-tresna direnez ere, euskeraren suztapena eta sabalkundea bereziki kontutan izanik eta, hori guzti hori, Autonomia Elkarte honetako herritarren eskubide eta iareipideak behar bezala egiteratzeko eustazpi eta oinarri (sic) (Eusko Legebiltzarra, 1982: 2. paragrafoa).

1.2.2. Euskarazko bikoizketaren historia laburra

Sorreratik beretik produkzioari loturik joan da itzulpen-jarduera euskarazko telebistan. ETBren programazioa hiru arlo nagusik osatu izan dute hasieratik: kanpo-produkzioa, informazio-saioak eta barne-produkzioa. Hiru arloetan izan du pisu handia itzulpenak.

Telebistetako emankizun-zerrenden zati handi bat kanpo-produkzioko fikzioarekin osatzen da. Halaxe ETBn ere, batik bat, 1983tik hasi eta hurrengo hiruzpalau urteetan, emisioko ordu gehienak kanpoan erositako programekin osatzen ziren. Horrek esan nahi zuen euskarara itzuli, egokitu eta bikoiztu egin behar zirela aurretik. Eta horretan ez zeukan eskarmenturik inork Euskal Herrian; film bat euskarara aldatzeko prozesua nola egiten zen zekienik ez zegoen.

Telebista bera sortu zen presarekin antolatu zen Irrati-Telebista Eskola ere. 1980ko urtearen udazkena zen. Labaienek dioen moduan, Donostiako Prim kaleko «zoko batean» (Andoingo Udala, 2004: 15). Kultura sailburu zen orduan Ramon Labaien, eta hark sustatuta antolatu zen Eskola², halaberharrez, jaiotzear zen telebistaren premiei aurre egiteko. Iñaki Beobide jarri zuten zuzendari, eta hiru bat hilabeteko hiru ikastaro antolatu ziren. Hirurogeita hamarren bat ikasle trebatu ziren eskola hartan (Ibañez, 1993: 70).

1. RTVEk traba eta oztopo ugari jarri zituen EITBren sorreran.

2. Primeko Eskola ere esan ohi zaio.

Tokia ez zegoen prestatua eta ez zen eroso, baina ikasle-irakasleek proiektu guztiz berri baten parte zirela sentitzen zuten, eta ilusioak eta motibazioak gehiago ahal zuen (Díez, 2003: 22-25).

Euskaltzaindiaren izenean, Juan San Martinek Itzultzaile Eskola bat sortzeko behar ziren baldintzak aztertzeko eskatu zion Xabier Mendigureni 1979an, eta 1980. urtean Martuteneko Itzultzaile Eskola izena hartu zuena sortu zen, Mendiguren bera zuzendari zela (Mendiguren, 1995: 160).

Franco hil ondoko lehen urteak ziren, eta euskal erakunde eta gobernuko hainbat arduradunek aurreikusi zuten Autonomia Estatutuak ateak irekiko zizkiola euskarari eta ordura arte inoiz zapaldu gabeko esparruetan sartu eta garatzeko aukera ekarriko zuela. Komunikabideetan, esate baterako. Giro horretan ulertu behar da ETBren beraren sorrera eta beste hainbat euskal elkarte eta erakunderena ere.

Testuinguru hartan, Mendigureni deitu zioten Irrati-Telebista Eskolako ikasleak hizkuntzaren arloan treba zituzan:

Ondo gogoan dut nola etorri zitzaizkan Iñaki Beobide, garai hartan Euskaltzaindiak Foru Aldundiko jauregian zeukan egoitzara, eta irrati/telebista-eskola bat antolatu behar zela nola esan zidan, eta bertako euskararen eta itzulpenaren irakaskuntzaz ardura nendila eskatzera. (...) Martuteneko Itzultzaile Eskolako zuzendari nintzen une hartan eta bertan metatzen ari ginen esperientzia ez ezik, zenbait ikasle ere eraman genuen Donostiako Prim kaleko telebista/irrati eskola jaio berrira (Andoaingo Udala, 2004: 20-21).

Izan ere, ikastaroak antolatu zituztenen aburuz, Irrati-Telebista Eskolak hartuko zituen ikasleek ezaugarri jakin batzuk bete behar zituzten: gazteak izateaz gain, euskara ondo menderatzen zutenak eta, ahal izanez gero, ikasiak hobesten ziren. Nahiz eta gero, ogibide eta adin guztietakoak onartu ziren (Díez, 2003: 26; Andoaingo Udala, 2004: 21).

Bi ikastaro mota antolatu ziren Primeko Eskolan: batetik, esatari-aurrezleak eta kazetariak trebatu ziren eta, bestetik, bikoizketaren arloan jardungo zutenak. Itzultzen eta idazten ikasteaz gain, dramatizazioa, lokuzioa eta ahoskera ere ikasten zen, beraz. Díazek (2003) eta Larrinagak (2007) jaso dutenez, euskaraz bikoizten erakusten, Kataluniako bikoizketa-etxeetatik etorritako profesionalak eta Bartzelonako Unibertsitateko irakasleak aritu ziren: Maria Jesus Leonard, Emili Prado eta Felipe Peña, besteak beste.

Euskal telebistagintza hastekotan zen artean eta ikus-entzunezkoen industria gertutik ezagutzen zuten profesionalak oso urriak ziren Hego Euskal Herrian. Guztien beharra zegoen EITB abiarazteko; abiaburua xumea izan zen, baina agintariak zentzu handiz jokatu zuten sektoreko «adituekin» (edo orduko «arituekin») kontatzean. Arestian esan den moduan, Xabier Mendiguren hizkuntzaren arloaz arduratu zen. Baziren zinemagintzan zein antzerkigintzan bidea egiten hasitakoak, eta beste batzuk irratigintzatik zetozen; guztiak izan ziren proiektu berri haren zutabe eta oinarri: Txaro Arteaga, Luis Alberto Aranbarri «Amatiño», Javier Aranburu, Iñaki Beobide, Xabier Elorriaga, Martin Ibarbia, Luis Iturri, Xabier Lete, Arantxa Urretabizkaia, Iñaki Zubizarreta...

Dena zegoen egiteko, dena ikasteko, Xabier Mendigurenek gogoratzen duenez: «Bat-batean ordura arte ezohikoak ziren testuen itzulpenak burutu, bikoizketariak prestatu eta ofizioa ikasi beharra izan zen arazorik handiena» (Mendiguren, 1995, 168).

Garaikoetxea lehendakariak Josu Zubiaurri eskatu zion EITB izango zenaren azpiegiturak eraikitzeko lanez arduratzeko, eta 1982ko urtarrilaren 11n izendatu zuten Gizarte Komunikabideetako sailburuorde (erakundea sortu baino sei hilabete lehenago zen, gutxi gorabehera). Behin EITB legez sortu zenean maiatzean, EITBko lehenengo zuzendari nagusi izandatu zuten Zubiaur (uztailaren erdialdera). Díez onartu zion moduan, Labaienek egindako ahalegin handiari esker, euskarara bikoiztutako materiala prest zegoen telebista abiatzeko unean (Díez, 2003: 23). Oso lan duintzat jotzen ditu Zubiaurrek lehen lan haiek (Díez, 2003). Lanbide berri hark sortutako lilura eta euforiazko adierazpenen artean bildu zuen Torrealdai ere Zubiaurren honako hau: «Donostiako Prim kaleko eskolako lehen probak ikustean, zera ateratzen zaitzaion EITBko arduradun nagusi izendatu berria zen Josu Zubiaurri: 'es como ir al desierto y encontrarse con un rascacielos'» (Torrealdai, 1985: 186).

Jende asko trebatu zen ikus-entzunezkoetako profesional gisa 80ko hamarkadako lehen urte haietan. Batzuen batzuk ezagun egin dira telebistagintzan, pantaila aurrean lan egiten dutenak batik bat: Maialen Iriarte, Josetxo Lizartza... Irratiko profesional batzuk ere orduan trebatutakoak dira: Karmele Arzak, Iñaki Elortza, Izaskun Barriola, Mari Karmen Odriozola... Bikoizketaren arloan egin zutenak bidea ez dira hain ezagunak publiko zabalarentzat, baina ez dira haiek baino gutxiago nabarmendu bikaintasunean: Mikel Arregi, Felipe Barandiaran, Jesus Eguzkitza, Itziar Jauregi, Karmele Huegun, Jose Antonio Sarasola, Jose Ramon Zubimendi, Iñaki Zubizarreta...

Prim kaleko eskolako lehen promozioko ikasleek Labaien jaunaren beraren eskutik jaso zuten ikasketa-ziurtagiria, 1981eko urtarrilaren 31n. Eta beste bi talde aterako ziren ondoren. Eskola hartatik sortu zen FIBIZE (Filmen Bikoizketarako Zentroa). 1981ean hasita, elkarte horrek euskaratu zituen Euskal Telebistarentzako lehen lanak: euskaraz inoiz bikoiztutako lehen film, marrazki bizidun eta dokumentalak izan ziren. Euskal Telebista estreinatu aurretik kanpo-produkzioko ordu asko prestatu eta bikoiztu ziren, eta hala, emisioa abiatu zenerako, programazioari eusteko behar zen material ugari metatu zen. Larrinagak dioenez, FIBIZEk itzultitako gidoiak Eresoinka enpresan bikoizten ziren, baina laster hasi zen enpresa hau berau itzulpen-zerbitzua ere eskaintzen; horrek FIBIZEren desagertzea ekarri zuen: «1983ko otsailean Iñaki Zubizarreta euskara-arduradun hasi zen Eresoinkan, eta estudioak bere gain hartu zuen gidioen euskarapena ere. FIBIZEk Eresoinkaren eskuetan utzi zituen paper guztiak, eta hor amaitu zen bere ibilbidea» (Larrinaga, 2007: 86).

Euskal Telebista emititzen hasi zenerako, baziren bi bikoizketa-etxe eta haien zerbitzuaz baliatzen hasi zen³: Gizpuzkoan kokatua zegoen bat eta Bizkaian bestea. Lehena, Donostian zegoen: Eresoinka SA. Hau ireki zen garai bertsuan

3. Euskal Telebistak hasieratik erabaki zuen bikoizketa ez zela etxe barruan egingo, eta inoiz ez du bere gain hartu lanketa hori. Kanpoko enpresek hornitutako zerbitzua izan da beti.

sortu zen Galdakao Studio⁴ etxea, Galdakaoko Xoxoa diskoetxetik. Bi enpresei gutxi gorabehera erdibana esleitu zitzairen kanpo-produkzioko orduen bikoizketa. Hala aitortu zion Labaienek Ibañez Sernari, honek jasota utzi zuenez (1993: 120).

Hilabete gutxira, Galdakao Studion lanean ziharduten hainbat bikoizle eta itzultzaile-egokitzaleek beren enpresa sortu zuten, Edertrack kooperatiba, eta Bilbon jarri zuten egoitza. Hain zuzen, enpresa berri horren sorrera gertatu zen Galdakao Studio enpresa eraberritze bidean jarri zutenean. Galdakao Studio izateari utzi, eta egoitza berria zabaldu zuen Galdakaon bertan (K2000), ikus-entzunezkoetan garaiko teknologia aurreratuenaz hornituta. ETBrentzat soilik lan egiten zuen bikoizketa-etxe izatetik haratagoko enpresa bihurtu zen, Espainiako bikoizketa-etxeekin ere lehiatzeko asmo bete-beteari ekin baitzion. 1986. urtea zen, eta bikoizketarako aretoez gain, platoak eta ikus-entzunezko industriari erantzuteko instalazioak ere zabaldu zituen eraikin berrian; besteak beste, Miramongo Produkzio Zentroa bukatu bitartean Euskal Telebistarako hainbat programa egiteko baliatu ziren⁵.

Eresoinka etxea ere, denborarekin, Irusoin bihurtu zen, eta Donostiatik Andoainera aldatu zuen egoitza 1990eko urrian. Hamarkada baten ondoren, berriz aldatu zen Donostiara, eta 2000. urtetik Zuatzuko enpresa-gunean dago. 1990eko hamarkadako lehen urteetan, Irusoin etxearen inguruan zebiltzan bikoizle batzuek ere beren ekoiztetxea sortu zuten, REC izenekoa. Enpresa hau, baina, ez da ETB1erako hornitzaile erregularra izan sekula.

EITBk berak orduak banatzeko jarraitutako irizpideak gorabehera, hiru bikoizketa-etxek hornitu dute hogeita hamar urtean Euskal Telebistaren kanpo-produkzioaren bikoizketa-lana: Edertrackek, Irusoinek eta K2000k. Gorabeherak gorabehera, honelatsu banatu izan du EITBk bikoizketa-lana hogeiren bat urtean: bikoizteko orduen % 20, % 40 eta % 40, esleitu izan zitzairen Edertracki, Irusoini eta K2000ri, hurrenez hurren. Hala izan zen 2004ko maiatza arte. 2004ko udan, Edertrackek eta Irusoinek Mixer izeneko enpresa bateratua sortu zuten eta, harrezkero, enpresa horrek hornitzen du Euskal Telebistaren bikoizketa-orduen gehiena (%80-85). Gainerakoak, K2000n eta RECen bikoiztu ohi dira.

4. Hainbat autorek (Barambones eta Zabalondo, 2006; Larrinaga, 2007; Otermin, 2006...) Galdakao Estudios izenarekin eman dute enpresa honen berri. Artikulu honetan, enpresak berak langileekin izandako lan-harremanetan baliatu zituen dokumentuetan ageri den izena erabiltzea hobetsi da.

5. Gerora ere urte askoan grabatu izan dira (gaur arte, 2012) EITBko programak K2000ko platoetan, lehen zein bigarren katerako.

**EITBren SORRERA ETA IKUS-ENTZUNEZKOEN ITZULPENA.
KRONOLOGIA LABURRA.**

- 1979** – Gernikako Estatutua onartu zen EAEn.
- 1980ko hasiera** – Eusko Jaurilaritzarako hauteskundeak EAEn. Karlos Garaikoetxea izendatu zuten lehendakari eta Ramon Labaien, Kultura sailburu.
- 1980ko udazkena** – Iñaki Beobide kultur eragileak, Labaien sailburuak aginduta, Irrati eta Telebista Eskola sortu zuen Donostian (Prim kalean). Urte eta erdi martxan egon zen Euskal Irrati Telebistan arituko ziren itzultzaile, bikoizle, esatari eta aurkezleentzat ikastaroak antolatzen.
- 1981eko urtarrilak 31** – Irrati eta Telebista Eskolako lehen promozioiko ikasleei diplomak banatu zizkien Labaien Kultura sailburuak.
- 1981eko otsaila** – Euskal Telebista artean jaio gabe zelarik, Telebistako Programazioaren eta Produzioaren zuzendari izendatu zuen Martin Ibarbia Labaienek. Ibarbiak Xabier Mendigurenengana jo zuen, eta bikoizketa-ikastaroa antolatu zuten Eskolaren barruan.
- 1981-82 ikasturte hasiera** – Mendigurenek FIBIZE antolatu zuen Irrati eta Telebista Eskolaren barruan.
- 1982ko martxoa** – Beobidek berariazko ikastaroa antolatu zuen kazetari, kamerari eta operadoreentzat, Eusko Jaurilaritzaren Lakuako egoitzaren soto batean, Studio Hamburgekoek emana.
- 1982ko maiatzak 20** – 5/1982ko maiatzaren 20 Legea onartu zen: Euskal Irrati Telebista Herri Erakundea (EITB) sortu zen.
- 1982ko ekainak 30** – EITBko aurreneko Administrazio Kontseilua osatu zen.
- 1982ko uztailaren erdialdean** – Administrazio Kontseiluak EITBko zuzendari nagusi izendatu zuen Josu Zubiaur.
- 1982ko udazkena** – Eresoinka bikoizketa-etxea ireki zen Donostian. Euskara-arduradun: Iñaki Zubizarreta.
- 1982ko azaroak 23** – Euskadi Irratia emititzen hasi zen, Jose Mari Otermin zuzendari zuela.
- 1982ko abenduak 13** – Andoni Areizaga izendatu zuten EITBko zuzendari nagusi. 1985 arte egon zen karguan. Luis Iriondo eta Inazio Arregi egun berean proposatu zituzten ETBko eta Euskadi Irratiko zuzendari gisa, hurrenez hurren.
- 1982ko hondarra** – Xoxoa diskoetxeak Galdakao Studio bikoizketa-etxea sortu zuen Galdakaon. Euskara-arduradun: Jose Antonio Sarasola.
- 1982ko Urtezahar gaua** – Euskal Telebistak (ETB) lehen emanaldia egin zuen⁶.
- 1983ko otsailak 2** – Gaueko bederatzietan lehen informatiboa emititu zen, euskaraz: *Euskadi Gaur*, David Barberok zuzendua.
- 1983ko martxo amaiera** – Egunean lau orduko programazioa egonkortzea lortu zen: ordu batetik hirurak arte eguerdian eta zortzietatik hamar arte iluntzean.
- 1983ko abuztuak 26** – Bizkaian inoiz izan diren uholde handienak. Euskal Telebista probaldian zen artean, baina telebistagintzan trebatzeko eskola ezin hobea izan ziren.
- 1983ko abenduak 19** – ETB emisio erregularriari ekin zion, probaldia amaitutzat emanda⁷.
- 1983ko otsaila** – FIBIZERen ibilbidea amaitzen da.
- 1985** – Galdakao Studion ibilitako hainbat kidek beste bikoizketa-etxe bat ireki zuten Bilbon, Edertrack izenekoa. Euskara-arduraduna: Jesus Eguzkitza.
- 1982** – Jose Maria Gorordo izendatu zuten EITBko bigarren zuzendari nagusi. 1987 arte egon zen karguan.
- 1986ko maiatzaren 31** – Euskal Telebistak bigarren kanala sortu zuen: handik aurrera, ETB1 euskaraz izango zen; ETB2, gaztelaniaz.
- 1986** – Bikoizketa-etxeek izena aldatu zuten: Eresoinka Irusoin izango zen, eta Galdakao Studio etxea K2000 bilakatu zen.
- 1987ko otsaila** – Euskal Telebistaren Miramongo produkzio-zentroa ireki zen.
- 1987** – Josu Ortuondo izendatu zuten EITBko zuzendari nagusi. 1991 arte egon zen karguan.
- 1990eko urria** – Irusoin Andoainera aldatu zen.

II. Taula. Artikulugileak atondua.

6. Lehen emanaldian honako saio hauek izan ziren: Probako karta, Hasierako hitzak, K. Garaikoetxea lehendakariaren Urteberriko mezua, *Rutas de Euskadi* dokumentala, *Espaziozainak* marrazki bizidunak eta *Pospoloak saltzen zituen neskatoa* telefilma. Guztira, ordubete eta hogeie minutu iraun zuen.

7. Bi erabaki garrantzitsu hartu ziren programazioan: batetik, eguerdiko albistegia, *Teleberri*, gaztelaniaz emango zen; bestetik, euskarara bikoiztutako produkzioa, gaztelaniaz azpidatuta emango zen.

<p>1991 – Iñaki Zarragoa izendatu zuten EITBko zuzendari nagusi. 1999 arte egon zen karguan.</p> <p>1992 – K2000 krisialdian sartu zen. Bilbao Bizkaia Kutxa egin zen jabe.</p> <p>1993 – Tinko Euskara Elkarte sortu zen. Helburua: euskara zinema-aretoetan sustatzea. Proiektuaren buru: Marian Galarraga.</p> <p>1996 – Galarragak eta beste kide batzuek REC bikoizketa-etxea sortu zuten.</p> <p>1999ko ekaina – Andoni Ortuzar EITBko zuzendari nagusi, Eusko Legebiltzarrak izendatuta. 2008 arte egon zen karguan. Bingen Zupiriak ETB SA enpresako zuzendari kargua hartu zuen.</p> <p>2000 – Irusoinek Andoaindik Donostiara aldatu zuen egoitza, Zuatzu parkera.</p> <p>2004ko uda – Mixer enpresa sortu zuten Edertrackek eta Irusoinek. Haien bikoizketa-atalen bat-egitetik bikoizketa-zerbitzua kontratatatzeko ETBk egindako lizitazioa lortzeko bide bakarra zen.</p> <p>2008ko urtarrila – Andoni Ortuzarrek kargua utzi zuen eta EITBko zuzendari nagusiaren kargua izendatu gabe geratu zen, baina Bingen Zupiriak jardun zuen EITBko buruan, bere ETBko kargutik. 2009ko ekainera arte bete zuen kargua.</p> <p>2009ko maiatza – Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan, EAJk eskuratu zituen eserleku eta boto gehien baina Lehendakartzarako nahikoa babesik lortu ez, eta gobernu-aldaketa gertatzen da Eusko Jaurlaritzan. Patxi Lopez sozialista izendatu zuten lehendakari.</p> <p>2009ko ekainak 18 – Eusko Legebiltzarrak Alberto Surio izendatu zuen EITBko zuzendari nagusi, EAJri lotuta ez dagoen lehen zuzendari nagusia.</p>

II. taula. Jarraipena.

2. Bikoizketa lanbide. Profesionalen egitekoak

Atal hau ETB1erako egiten den (oraintsu arte egin izan den⁸) bikoizketa go-goan hartuta idatzita dago. Ez du esan nahi beste prozesu batzuk egon ez direnik edo ez daudenik.

Kanpo-produkzioko ikus-entzunezkoak euskarara bikoizteko prozesuan hainbat profesionalak esku hartu ohi du, eta bakoitzak ondo zehaztuak ditu zein diren bere egitekoak. Oro har, lau lantalde bereizi daitezke:

1) Bikoizketa-etxeko Ekoizpen taldea. ETBk film bat, telesail bat edo dena delako produktua bikoizteko dela erabaki duenean, bikoizketa-etxe batera bidaltzen du jatorrizko materialaren kopia bat. Bikoizketa-etxean, alorreko ekoizleak bere lantaldea antolatu ohi du, egun jakin baterako lana bikoiztua izateko.

2) Bikoizteko gidoia atontzen duten *free lance* profesionalak. Aktoreek bikoiztuko dituzten elkarrizketak itzultzaile-egokitzaileek egiten dituzte. Langile *free lance*ak izan ohi dira, enpresaz kanpoko langile kolaboratzaileak, baina etxeko hizkuntza-arduradunak ezarritako lan-ildo eta hizkuntza-moldeei jarraitzen diete. Normalean, bikoizketa-etxe bakoitzak konfiantzako itzultzaile-egokitzaileekin egiten du lan beti.

3) Ahotsa jartzen duen bikoizle-taldea. Bikoizketako aktoreak dira; ahots-tono eta tinbre askotakoak, eta filmek zer motatakoak behar dituzten, lan gehiago edo gutxiago izango dute. Normalean, bikoizketa-etxe batean baino gehiagotan egiten dute lan.

4) Euskal Irrati Telebistako Euskara Saila. EITBko euskarazko produkzioaren kalitateaz arduratzen dira sail honetan dihardutenak. Sailaren egitekoetako bat da ETBrako euskaraz bikoizten diren produktuei erreparatzea, eta langintza horren bideak zedarritzea.

8. Ez dakigu zer etorkizun izango duen euskarazko bikoizketak, jarduera hau asko urritu baita azken urteotan.

Hona, hurrenez hurren xeheago azalduta, zertan aritzen diren profesionalok:

2.1. Bikoizketa-etxea

ETBk pentsatzen duenean zer material bikoiztuko den, lana zein bikoizketa-etxeri enkargatuko dion erabaki behar du, eta ondoren jatorrizko materiala bidaltzen dio. Esan gabe doa, emisioak markatzen du lan-erritmoa. Normalean, nahiko epe estuetan lan egiten da.

Bikoizketa-etxeak epe barruan moldatu behar du lana, euskaratuta eta Euskara Sailekoen onitziarekin iristeko emisiora.

2.1.1. Ekoizlea

Bikoizketa-etxean lan-katea antolatzeko ardura du. Lehenik ikusi behar du ETBtik jasotako materialak zenbateko lana emango dion etxeari, eta zenbat denbora dagoen eskatutakoa egiteko. Horren arabera, deitzen die itzultzaile-egokitzaleei eta berak ezartzen die lana entregatzeko muga-eguna.

Kanpoko laguntzaileekin egin beharreko harremanak eta haiei ordaindu beharrekoak ekoizlearen ardura dira.

2.1.2. Zuzendari artistikoa

Bikoiztu behar den lanean zenbat pertsonaia eta zer motatako ahotsak behar diren aztertu, eta bikoizketa-etxeak gehien ibili ohi dituen bikoizleekin betetzen ditu filmerako behar dituen paper nagusiak. Bigarren edo hirugarren mailako protagonistak egiteko beste bikoizle batzuei ere deitzen diete. Zuzendaria nor izango den ere proposatzen du.

2.1.3. Hizkuntza-arduraduna (zuzentzailea)

Bikoizketa-etxe orotan izan ohi da euskara-arduraduna, eta bikoizketaren hizkuntza koherentziaz gauza dadin zaintzen du. ETBko Euskara Sailekoekin harremanak bideratzen ditu, eta etxeko itzultzaile-egokitzaleen lana koordinatzea eta zuzentzea du egiteko nagusia. Orobat, bikoizketa-zuzendariari argibideak ematen dizkio zalantzak dituenen edo alde zuzenetik onartutako gidoiari proposamen berriren bat egin nahi dionean.

2.1.4. Teknikariak

Ikus-entzunezkoetan talde-lana da nagusi; bikoizketan, hizkuntzaz eta ahotsaz arduratzen diren profesionalen gain, ezinbestekoak dira teknikariak. Hainbat egiteko izan ditzakete, baina bikoizketari dagokionez, garrantzitsuena da bikoizketako soinu-banda egoki landu eta emisiorako prest uztea. Prozesu osoan, bi unetan dira bereziki aipagarriak: ahotsak grabatzean, eta grabazio guztiak erregistratu ondoren egin behar diren soinu-nahasketetan.

2.2. Free lance langileak: gidoiaren lanketa

Bikoizketaren lan-katean dihardutenen artean babes gutxien duten profesionalak dira: ez dute lan-kontraturik inongo bikoizketa-etxerekin, ez lanaren ziurtasunik,

ezta arloko lan-hitzarmenik ere. Trebakuntza handiko lana eskatzen zaien arren, oso lan-baldintza kaskarretan aritzen dira. Itzuli-egokitutako lerro kopuruko edo filmaren minutu kopuruko fakturatzen dute, lanaren zaila nolakoa den eta eskatzen duen espezializazioa ia kontuan hartu gabe.

Beren etxe edo bulegoetan atontzen dituzte gidoiak, eta bikoizketa-etxeko hizkuntza-arduradunarekin telefono bidez izan ohi dute harremana. Azken bizpahiru urteetan, teknologia berrien garapenari esker, hasiak dira beste komunikazio-bide batzuk ere erabiltzen.

2.2.1. Itzultzailea

Erdarazko testua euskarara ekartzea izan ohi da itzultzailearen lana. Ez da falta profesionalik jatorriz ingelesez, frantsesez, alemanez edo gaztelaniaz ekoiztutako lanen euskarazko gidoia atontzeko gai denik; baina, esate baterako, japonierazko marrazkien kasuan, japonieratik ingelesera edo gaztelaniara itzuli ohi dira lehenik, eta itzulpen horiek zubi gisa erabili gero euskarara ekartzeko.

Erraz uler daitekeenez, baina, itzultzea ez da nahikoa bikoizketarako gidoiak atontzeko: pertsonaien esamoldeetara ekarri behar dira itzulpenok, bai luze-laburreran eta bai sinkronian.

2.2.2. Egokitzailea

Itzulitako testu hutsak, normalean, oso gordinak eta landugabeak izan ohi dira, pertsonaiek gutxi gorabehera zer dioten besterik ez dute jasotzen. Alde horretatik, elkarrizketaren informazio osoa eskaini ohi diote egokitzaileari, baina ez da bikoizketa-gidoia, bikoizleak ezin du baliatu itzulpena ahotsa jartzeko. Elkarrizketen esanahiaz gain, bikoizleei beste informazio mota bat ere ematen zaie: aktoreak noiz isiltzen diren, beste ahots-soinu batzuk noiz egiten dituzten, abestu ala negar egiten duten, etab. Hala, jatorrizko aktoreak egiten dituen ahots (eta gorputz) mugimenduetara doitu eta haren esaldien luze-laburretara moldatutako testua atondu behar du egokitzaileak, itzulpena oinarri hartuta.

Bikoizketaren lehen urteetan, pertsona batek —jatorrizko hizkuntza zekienak— filmaren gidoia itzultzen zuen, eta, ondoren, euskaraz jantziagoa eta trebeagoa zen profesionalak itzulpen gordina zena «egokitu» egiten zuen: pertsonaien aho-mugimendu eta erritmoetara moldatuta, euskara komunikatibo eta ahozkoa lortzeko helburuarekin, eta generoak eskatzen zuen hizkeran emana. Honela zioen Zubizarretak:

Lehenik testua itzultzerakoan pelikula ere ikusi egiten du itzultzaileak, testua eta esaten dena bat datozen jakiteko. Aldaketa guztiak kontuan hartuz, pelikulan datorrena itzultzen da, noski (...) Ondoren itzulitako testu hori egokitzaileari ematen zaio eta honek pelikulako pertsonaien aho-mugimendua eta kontuan hartuz egokitzen du testua: neurrian bat etorri behar dute pelikulan esaten denak eta testuak, baita ezpainen mugimenduan ere, gero bikoizterakoan bat etor daitezten jatorrizkoa eta euskal bertsioa (Zubizarreta, 1984: 65).

Orain, ordea, itzultzaile-egokitzailea da, pertsona bakarra, testu osoaren euskarazko bertsioaren autorea:

ETB1eko hasierako urteetan, itzultzaileak jatorrizko bertsiotik euskarara ekartzen zuen testua eta, ondoren, egokitzaileak testu hori moldatzen zuen neurrira ekartzeko, eta behar bezalako hizkera komunikatiboa prestatzen zuen. Baina, urte askora gabe, itzultzaile-egokitzailearen figura gailentzen joan zen euskal estudioetan: lehen biren artean egiten zutena, urte gutxiren buruan, pertsona bakarra hasi zen euskarazko gidoia egiten (Zabalondo, 2005a: 300).

2.3. Bikoizle-taldea: ahotsaren lanketa

Itzultzaile-egokitzaileak prestatutako gidoiari ahotsa jartzen diote bikoizleek. Ahotsa dute lanabes nagusia eta ondo zaindu beharrekoa. Bikoizketa-etxera joaten dira lanera; hango bikoizketa-aretoetan grabatzen dituzte elkarrizketak, batzuetan bakarka eta beste batzuetan bikoizle lankideekin, ekoizleak egindako lan-planaren arabera.

Itzultzaile-egokitzaileen antzera, egindako lan-kopuruaren arabera (*take*⁹ kopurua) irabazten dute soldata, eta haiek bezala, inoiz ez dute jakiten lanik noiz izango duten, ezta nolakoa den ere; baina ez dira langile «autonomoak», kontratua egiten baitzaie lanera doazen eguneko, eta betiere indarrean dagoen artisten lan-hitzarmenaren araupean.

2.3.1. Bikoizlea

Bikoizlearen lanaren muina dramatizazioa da; jatorrizko pertsonaiaren larruan sartu behar du, gidoian idatzita dituen hitzekin eta ikusten ari den irudiekin, bere «antzezpena» jatorrizkoaren ahalik eta antzekoena izatera irits dadin. Horrela, bikoizleak ikuslea «engainatu» egiten du, eta pertsonaiak euskaraz diharduen ilusioa sorrarazten dio.

Eskarmentua behar da bikoizle ona izateko, eta lanak besterik ez du ematen trebatzeko aukera.

2.3.2. Aretoko zuzendaria (bikoizketa-zuzendaria)

Filmaren bikoizketa osoaren gaineko ardura dauka eta bikoizleen interpretazio-lana zuzentzen du. Bikoizle ere izan ohi da. Askotan, zuzendu behar duen filmeko protagonistaren ahotsa ere berak jartzen du. Inoiz gerta liteke testu zuzen eta egokia izan arren, ahoskatzeko zaila izatea, edo bikoizlea trabatuta geratzea; zuzendariaren lana izango da bikoizlearen berbaldia moldatzea, *take*aren kohesioari (eta are gehiago, sekuentziaren kohesioari) eta filmaren koherentziari erreparatuta.

2.4. ETBko Euskara Saila

Euskal Telebistako Euskara Sailean dihardutenek bikoizketa-arloari ere erreparatzen diote. Bikoizketa-etxeetako hizkuntza-arduradunekin izan dute harreman zuzenena urteetan. Azken boladan, itzultzaile-egokitzaileekin eta bikoizleekin ere antolatuta izan dituzte lan-bilera batzuk.

Bi unetan esku hartu ohi dute nagusiki: lehendabizi, aurreprodukzioko lana gainbegiratu eta bideratzen (edo zehazten); gero, lana bikoiztu osteko eta emisioan sartu aurreko azken kontrolean.

9. *Take* edo hartualdia.

3. Bikoizketaren prozesua. Deskripzioa

Ikus-entzunezkoak talde-lana dira oro har. Eta halaxe da bikoizketa ere. Jatorrizko hizkuntzan dagoen material batek hainbat etapa burutzen ditu ikus-entzuleek etxean euskaraz ikusi arte, eta arestian ikusi denez, hainbat profesionalen eskuetatik igarotzen da. Hona, labor azalduta, kanpo-produkzioko lan batek euskaraz bikoiztu arte egiten duen bidea.

3.1. Enkargua eta aurreprodukzioa¹⁰

ETBko kanpo produkzioko arduradunek filmak emititzeko eskubideak erosi edo negoziatzen dituzte.

Bikoizketa-etxeak ETBren agindua jasotakoan, zer lan eman zaion aztertu beharko du, eta noizko eta zer maiztasunekin entregatu beharko duen lana bikoiztuta. Bien bitartean, ETBtik etorritako materiala ikuskatu eta kopiak egingo dituzte teknikariek.

Ez da gauza bera film luze baterako edo 100 ataleko marrazki-saila bikoizteko prestaketak egitea, bistan denez, baina gorabeherak gorabehera, antolakuntza-fase horretan, itzultzaile-egokitzailleekin jarriko da harremanetan arduraduna (ekoizlea), eta jatorrizko bertsioan dagoen materiala bidaliko die, euskarara itzuli eta egokitu dezaten. Hasierako urteetan, itzultzaile-egokitzaila bera joaten zen bikoizketa-etxera lanerako material bila; han jasotzen zituen jatorrizko bideoaren eta gidoiaren kopia bana. Urte batzuk igarota, paketeriako mezularien bidez jasotzen zituen bikoizketa-etxeok bidalitako materiala. 2005. urte inguruan hasita, sarea baliatu ohi dute itzultzaileek eta bikoizketa-etxeek audio/bideo artxiboak eta gidoiak trukatzeko.

Itzultzen hasi aurretik, esku artean zer daukan aztertu behar du itzultzaile-egokitzailleak; horretarako materiala ikuskatu behar du. Lehen ikuskatze horretan, itzultzaileak bi konturi erreparatuko die. Alde batetik, zer generotako filma landu behar duen jakin behar du, lan bakoitzak bere arreta eskatzen baitu: dokumentala izan, film historiko edo literarioa, marrazki bizidunak, publizitatea edo umorezko telesail bat... Azken batean, produktu bakoitza bakarra da beti, eta hartara jartzea eskatzen dio itzultzaile-egokitzailari. Beste aldetik, hastapeneko ikuskapen horretan, materiala nola datorren begiratu behar da, alegia ea audioa eta gidioa bat datozen.

Kontuan izan behar da jatorrizko audioan datorrenaren euskarazko bertsioa atondu behar duela itzultzaile-egokitzailleak; hau da, bikoizketa-etxean lanerako eman dioten irudietan zer ikusten den eta, batez ere, zer entzuten den izango du lanerako erreferentzia nagusia. Gidoi idatzia audioarekin bat badator, hainbat hobe.

Urteekin, infomazio- eta komunikazio-teknologiaren garapen handia gertatu da, eta bikoizketaren arlo guztian nabaritu da aldaketa eta aurrerabidea. ETBren lehen urteetan, itzultzaile-egokitzailleek Sonyren Betacam sistemako bideoak eta gidoi ez beti fidagarriak jaso ohi zituzten lanerako. Sarritan, produkzio-etxeek (*majorrek*

10. Atal hau aurreko lanetan ere landu du egileak: (Zabalondo, 2005 a) (Barambones eta Zabalondo, 2006).

eta) eskura jartzen zuten gidoia filmatzeko erabilitako gidoia zen; eta gauza jakina da, filmazioetan gidoiak gutxitan eusten diola sortu zen bere hartan. Esan nahi baita, itzultzaileak, askotan, ezin zuela aurrera egin behin-behineko gidoi harekin eta bideoko audioari jarraituz belarriz ateratzen zituela elkarrizketa zatiak edo osoak. Urteekin, jatorrizko gidoi gero eta hobeak eskuratu dituzte produktoreek eta hori oso lagungarria izan da itzultzaileentzat. Bideo-euskarriak ere VHS sistema-koak hedatu ziren 80ko hamarkadaren azkenaldirako, eta geroago etorri zen DVD formatuan lan egitea.

Jatorrizko testuak berak aginduko du, neurri handi batean, zer erregistro eta hizkera-maila landu behar den (ez dira berdinak film poliziakoa, zientzia fikziozkoa, literarioa...). Hori dena kontuan izan behar du itzultzaile-egokitzaleak euskarazko bertsioa prestatzen ari denean.

Film bakoitzaren barruan ere gerta liteke hizkuntza-mailak bereizi beharra. Ez hori bakarrik; sarri tokatzen dira abestiak, eta pertsonaien berbaldiaren azpitik entzuten den telefono-grabazio bateko, irratiko edo telebistako jarduna; gerta liteke jatorrizko bertsioan bertan bigarren hizkuntza bat egotea —jatorrizko bertsioan azpidatzita datorrena, esaterako—. Testu mota horiei guztiei eman behar zaie erantzuna. Baina testuaz gain, badira hotsak ere, eta pertsonaien ahotik ateratzen diren soinu guztiak markatu behar ditu egokitzaleak: eztulak, barreak, negarrak, txistuak, aharrusiak, arnasak... Laburbilduz, jatorrizko ikus-entzuzkoan dagoena da abiapuntua eta horren euskarazko bertsioa ematea xedea.

Film batean, hau da, jatorrizko aktoreek esaten dutena itzultzea, beraz, ez da nahikoa. Filmeko pertsonaien aho-mugimendua eta berbaldiaren etenak kontuan hartuz, tarte horretan egokitu behar da testua —ahoarekin egindako soinu guzti-guztiak—. Eguzkitzak *hizketaren lantegia* deitu zion aurreproduzioaren faseari, non bikoizketa-etxeak, itzultzaile-egokitzaleak eta EITBk bikoizketaren irizpide nagusiak negoziatu eta finkatzen dituzten (Eguzkitza, 2007).

Egokitzeak esan nahi du testua gozatzea, komunikazio-egoera jakin batera ekartzea esanahia eta esamoldea, kasuan-kasuan pertsonaia bakoitzaren mugimendu eta hitz egiteko erari lotuta. Ez dute berdin hitz egiten epaile batek eta auzo pobre bateko gaizkile batek, ezta aitona batek eta hiru-lau urteko haur batek ere. Pertsonaia bakoitzak esan behar duena eta ONen edo OFFen dagoen markatzea egokitzalearen lanetako bat da. Halaber etenak eta isiluneak non dauden adieraztea.

Itzultzaile-egokitzaleak, beraz, bi isiluneren artean dagoen testua atondu behar du: hitz bat, esaldi bat edo gehiago, hots bat, onomatopeia bat... Behin erabakitakoan zer testu sartuko duen, ondo datorren ikusiko du ahots gora esanda, pertsonaiaren erritmoan interpretatuta eta isiluneak errespetatuta. Eta ez paperetik irakurrita, buruz botako du testua itzultzaile-egokitzaleak (gero bikoizleak egingo duen lana emulatzuz). Oso garrantzitsua da urrats hau: testu bat irakurri edo interpretatu, aldea dago denboran.

Testua ahots gora probatuta, gainera, jakingo du luze-laburrean eta ezpainen mugimendura doitzen den. Egokia ez bada, beste testu bat atondu beharko du. Eta berriz probatu, harik eta ondo egokitu arte.

Bikoizketa-etxeetan hizkuntza zuzentzea ez da nahikoa. Akats ortografiko eta gramatikalei erreparatzeaz gain, hizkuntzaren funtzio komunikatzailea betetzen dela ziurtatu behar du hizkuntza-arduradunak. Jakin behar du, batzuetan, euskaraz emandako esaldi biribilek ez duela esan nahi testuinguruan baliagarria denik; esate baterako, kakofonikoa bada edo irudiekin ondo ez badator (dela neurriagatik, dela testuinguruagatik), zer edo zertan huts egiten duen testuak antzeman beharko du, eta beste bat moldatzen jakin. Ezin da ahaztu entzuteko izango den produktu bat atontzen dela ikus-entzunezko lanetan, eta ez irakurtzeko. Filmetan, kasu, hizkerak bizia eta ahozkotik oso hurbilekoa izan behar du, baina ez dokumentaletan.

Euskarazko gidoiak funtzionatu egin behar du. Koherentea izan behar du bereborean eta jatorrizkoarekiko fidela; estiloa zaindu behar da lan osoan... Etxe barruko lanen eta taldekideenen jarraipena egiten du hizkuntza-arduradunak: lantaldea koordinatu behar du. Demagun telesail batean ari direla lanean: erregistroak eta izenak definitu behar ditu hizkuntza-arduradunak egokitzaileekin, pertsonaiei izen berberak ematen zaizkiela ziurtatu behar du, pertsonaia bakoitzari dagozkion ezaugarriak zaindu...

Orobat, ETBko Euskara Taldearekin (kalitate-kontrola) harreman zuzena izango du bikoizketa-etxeke zuzentzaileak: telesailak hasi aurretik; zuzenketa ostekoak komentatzeko; planteamendu eta irizpide orokorrak finkatzeko; etorkizunari begirakoak...

Hizkuntza-arduradunak itzultzaile-egokitzailearen lana gainbegiratu duenean, ETBra bidaltzen da lana; hango hizkuntzalari taldeak bikoizketa-etxeetatik bidalitako euskarazko gidoi idatzien kalitate-kontrola egiten du. Akatsik bada, zuzendu edo bestelako iradokizunak egiten dituzte, eta irizpideak markatu.

ETBtik lana zuzenduta itzultzen denean bikoizketa-etxera, grabazioari ekiteko prest dago. Ordurako, segur aski, produkzio-arduradunak antolatu ditu areto, teknikari, zuzendari eta bikoizleen lan-orduak...

3.2. Produkzioa

Film guztiak zatika-zatika grabatzen dira; zati bakoitzari *take*¹¹ edo hartualdi deitzen zaio. Hala, filma hasten denetik (*Take 1*) eta bukatu arte, takez take zatituta emango du itzultzaile-egokitzaileak bikoizteko prestatu behar duen gidoia. Enpresa batzuek —Mixer-Irusoin, kasu— sistema informatizatu propio diseinatuak ezarri dituzte eginkizun horretarako, baina, hala eta guztiz ere, egokitzaileak marka batzuk ezarri behar ditu gidoian, bikoizketa-etxeke programa informatikoaren bitartez behar bezala zati ditzaten *take*ak. Lan horrek garrantzi handia dauka, ez bakarrik produkzioa eta bikoizketa-aretoak antolatzeko orduan; izan ere, bikoizleen diru-sarien neurria da, *take*ko kobratzen baitute.

11. Lanbideko argotean *take* hitza erabiltzen da euskaraz ere, eta ingelesez bezala ahoskatzen da «teik»: «bi *take* grabatu behar dituz»; «*offeko takea* da hurrena»; «film bat *takeatzea* oso lan gogaikarria da», eta abar. Artikulu honetan ere *take* lehenetsi da, baina inondik inora ere ez da baztergarria *hartualdi* terminoa.

Film bakoitzaren ezaugarrietara ondoen egokitzen diren ahotsak aukeratzeko ahalegina egiten da beti. Bikoizketa-aretoetako produkzioa optimizatzeko, errentagarritasun-irizpideei jarraituta antolatzen da ahotsa grabatzeko jarduera. Normalean, ez da grabatzen lehen *taketik* hasi eta, *take* zenbakiaren hurrenkerari jarraituta, filma bukatu arte.

Bikoizketaren urte oparoetan, eta batik bat sistema analogikoekin lan egiten zenean, sarritan, bikoizle bat bi filmetan batera aritzen zen ahotsa jartzen. Horrek zailtasun handiak eragiten zituen produkzioa programatzeko orduan, bikoizle bakoitzaren lan-agendarekin kontaktu behar zen eta. Zorionez, digitalizazioaren aroak¹² abantaila teknologiko handiak ekarri zituen, eta orain ia beti da posible bikoizlearen ordutegietara moldatu eta beretzat propio pista bat gordetzea.

Aretoko zuzendaria aretoan dago filmaren bikoizketak irauten duen denboran. Batetik, bikoizleari laguntzen dio interpretazioan, eta gainera euskarazko elkarrizketen koherentzia eta kohesio dramatikoa zaindu behar ditu.

3.3. Postprodukzioa

Produkzio-fasean grabatu ohi dira elkarrizketa guztiak aretoan, eta teknikariak denak ondo erregistratuta eta gordeta izaten ditu ordenagailuan, memoria handietan. Postprodukzioan, euskarazko soinu-banda osatu egin behar du, eta hura da erantzule eginkizun horretan: grabatutako elkarrizketak jatorrizko zarata, soinu eta musikarekin nahastu, eta sinkronizatuta utzi behar ditu teknikariak bere azken ukituak burututakoan. Era honetan azaltzen du Eguzkitzak:

Aurreprodukzioan materiala prestatu ondoren, produzitu egiten da aretoetan ahotsa jarriarik, eta gero postproduzitu egiten da guzti horri nolabaiteko oihartzun jakin bat emateko, guztiarekin halako harmonia biribil bat lortzeko. Ez da berdin hemen [areto barruan] berbetan egon eta zelanbaiteko oihartzuna entzun beharko litzateke —barruak ematen dion oihartzun hori—, edota kanpoan egon: ahotsak ez dauka hormarik eta, beraz, garbiago zabaltzen da. Orduan, unean-unean ahotsari ere eman behar zaio behar duen oihartzun hori... (Eguzkitza, 2007: 20)

Bikoizketa-etxeko zuzendari artistikoak produktu amaituaren gainbegiratzea egingo du, dena behar den bezala geratu dela ziurtatzeko.

Azken ikuskatze hori eginda, ETBko hizkuntzalariei bidaltzen zaie berriz, eta emisio aurreko euskarazko bertsio bikoiztuaren kalitate-kontrola egiten dute. Fase horretan, ahozkotasunetik aztertzen da filma: bikoizleen interpretazioak sinesgarriak eta egokiak ote diren begiratzen da. ETBko oniritzia jasotzen badu lanak, bere horretan emititzen da. Batzuetan zuzenketa batzuk egiteko iradokizunak iristen zaizkie bikoizketa-etxekoei; ahal dela, emisioaren aurretik konpontzen da, baina gertatu izan da, denborarik egon ez eta konpontzekoak emisio osterako utzi behar izatea ere.

12. Digitalizazioak pista gehiagotan grabatzea ahalbidetu du, eta, horri esker, nahi izanez gero, bikoizle bakoitzari pista bat egokitu dakioke. Lehen, pista bi baino ez zeudenez, nahitaezkoa zen bikoizle guztiak aretoan egotea, pista bakarrean grabatzeko (bestean musika eta efektuak zihoazen).

4. Ikus-entzunezkoen euskal itzulpenez gogoeta

Euskal Herrian, ikus-entzunezkoetan itzulpen gehien bikoizketarako egin da, telebistan batik bat. Baina azpidatziak ere badituzte teleikusleek. Behin baino gehiagotan altxatu dira euskarazko bikoizketaren kontrako ahotsak, zein garai bateko gaztelaniazko azpidatziaren kontrakoak ere. Prentsara bideratutako iritzi pertsonalak izan dira gehienbat, idatzi dituenaren gustu pertsonalari lotuak gehienetan. Lourdes Oñederra EHUko irakasle eta EITBko hizkuntza-aholkularia izandakoa honela mintzatu zen *Diario de Noticias de Alava* egunkarian

Erabat nago filmak jatorrizko bertsioan eta azpigituluekin ikustearen alde, eta uste dut gure umeak lehenbailehen ohitzea litzatekeela onena, azken batean ohitura kontua baita neurri handi batean. Esan nahi dut ohitu egiten dela filmak bikoiztuta ikustera edo jatorrizko bertsioan ikustera. Ohitura bat, ordea bestea baino hobea da: osasuntsu jatea edo gaizki jatea bezala. Ohitu egiten da bat... baina elikadura ez osasuntsuaren abantaila bakarria erosotasuna eta prezioa dira. Filmak bikoiztearena, erosotasuna bakarrik. Aspaldi ohartu nintzen filmak jatorrizko bertsioan ikusten ditudanean, antzezleak askoz hobeak iruditzen zaizkidala. Noski, ahotsa antzeztearen funtsezko zatia da, bikoizketarekin ostu egiten zaiona aktoreari. Bada bikoizketarekin bereziki urduri jartzen nauen beste gauza bat ere, iruzur moduko bat: aktore bat baino gehiagok ahots bera izatea (Oñederra, 2005).

Oñederrak bizpahiru faktore aipatzen ditu bikoizketa baztertzeko arrazoitzat: filmak bertsio jatorrizkoan edo bikoiztuan ikusteko ohitura, erosotasuna eta bikoizle batek aktore bati baino gehiagori ahotsa jartzea¹³. Oñederraren iritzi horren berri eman zuen Joxe Aranzabalek *Faroa* izeneko bere blog pertsonalean¹⁴, eta Lurdes Oñederrarekin bat zetorrela onartzen zuen. Gaiak oihartzuna izan zuen eta blog horretan jasota daude ezpala bereko iritziak, zein bikoizketaren aldekoak ere.

Bikoizketaren eta azpidazketaren inguruko ika-mikei, bataren eta bestearen aldekoek piztutako suari hauspoa emateko tokia ez da hau; luze joko luke batzuen eta besteen arrazoiak biltzeak, eta lan honek ez du horrelako helbururik. Autore jantziagoek luze hitz egin dute eta bildu dituzte horren inguruko sorburuko arrazoi, iritzi eta enparauak. Egia da, baina, nekez bazter daitekeela gaia; bikoizketa zein azpidazketaren inguruko bibliografia kontsultatzen denean, etengabe agertzen da kontu hau, eta autore askok eman dute beren ikuspegia gaiaren inguruan (Agost, 1999; Barambones eta Zabalondo, 2006; Chaume, 2004; Díaz Cintas, 2001, 2003; Etxeberria, 1994; Gambier eta Suomela-Salmi, 1994; Gottlieb, 2001; Lambert, 1994; Lekuona, 1994; Mayoral, 1993, 2001; Santamaria, 2001; Zabalbeascoa, 2001...).

Bikoizketaren aldeko edo kontrako ahotsei erreparatzen hasiz gero, alde eta kontra hitz egin beharko litzateke, nik uste, alderdi onak eta ez hain onak erakusteko. Eta gauza bera: azpidazketaren alde eta kontra mintza daiteke, ez alde edo kontra. Kontua ez da bikoizketa eta azpidazketa aurrez aurre jartzea, bi itzulpen mota baitira: batak ez du bestea baztertzen, eta bat ez da bestea baino hobea.

13. Orain aurretik egindako ikerlan batean, Zabalondok (2005b) ere jaso zituen faktoreok euskarazko bikoizketaren elementu gaitzesgarri gisa.

14. <http://www-goiena.net/blogak/faroa/218> [azken kontsulta-eguna: 2012-VII-25].

Hizkuntza bakarra dakiten teleikusleak izan dira bikoizketa gehien defendatu dutenak. Eta bestela, ingeles gutxi edo ezer ez dakitenak —ingeleza baita ikus-entzunezkoetan gehien baliatzen den hizkuntza—. Ikusle horiek ohituta daude beren hizkuntzan jarraitzen telebistaren jario osoa eta, ulertzea dutenez helburu nagusia, gutxitan jartzen dute zalantzan ahots berriek emandako bertsioa. Euskaldun heldu askok ulertzen du ingeleza, maila batera arte. Baina filmetan-eta ez dute erraztasunik jatorrizko elkarrizketei erosotasunez jarraitzeko, eta gehienek nahiago dute oztoporik gabe ikusi telebista, alegia, bikoizktutako bertsioan. Aldiz, gazte gero eta gehiagok daki ingeleza, baina ez dirudi telebistaren aurrean jartzen direnean ingelesaren aldeko hautua egiten dutenik. Orain arte, behintzat.

Arestian aipatu dugun bezala, bikoizketaren aurkako iritziak ugaritzen doaz gurean, gero eta sarriago plazaratzen dira, gero eta ozenago entzuten dira. Bada frankismoaren inposaketa dela argudiatuta uko egiten dionik ere. Baina frankismoa ez zen existitu Frantzian esate baterako, eta bikoizketa oso bizirik egon da eta dago herrialde horretan, «ezinbesteko baitute [frantsesa] ingelesetik babesteko» (Zubizarreta, 2007: 34).

Azpidazketaren aldekoek jatorrizko hizkuntzaren eta aktoreen lanaren gozagarritasuna lehenesten dute. Zinez, gauza ederra da gustuko aktorea ikusi eta belarrrian bizi-bizi sentitzea. Kulturen arteko hesiak gainditzeko ere oso egokia da: jatorrizko bertsioaren hizkuntza entzun/ikasteko, batik bat gure eguneroko bizimoduan eta lanbidean aplikatu behar badugu. Ondo legoke geure hizkuntzari horrenbesteko arreta eskainiko bagenio, bide batez esanda.

Azpidazketaren kontra, berriz, arrazoi hauek eman izan dira: pantailako hitzak irakurtzen jardun beharrak filmaz gozatzea galarazten du eta produktu zinematografikoaren alderdi estetikoari eragiten dio, irudia ez baita osorik ikusten. Gainera, uste baino denbora eta arreta gehiago eskatzen bide du azpidatzen irakurketak, Romero-Frescok frogatu duenez, teleikuslearen begien mugimenduei jarraituta egin dituen ikerketen ostean (2010). Beste alde batetik, euskaraz ongi alfabetatutako ikusleak baino ez luke ohitura nahikorik izango azpidatziak, irudien abidan, arin eta aise irakurtzeko. Horrez gain, ikusle arrunta —ez zinefilo espezializatua— «deskonektatzeko» gogoarekin jarri ohi da telebista-pantailaren aurrean lanetik nekatuta iritsi denean, eta zail egingo zaio zentzu guztiak erne jarri eta filma irakurtzeak eskatzen dion ahalegin gehigarria egitea. Jakina da euskaldunon debozio militantea euskararekiko; horri esker egin izan du aurrera hizkuntzak ataka larrietan egon denean. Baina egia da, halaber, ez dela jarrera militante hori erakutsi Euskal Telebistarekiko (orain arte). Eta beraz, egoera hipotetiko militanterako itzultzekotan ere, nekez pentsa liteke euskal teleikusleek munduko gainerako teleikusleek baino grina eta gogo handiagoz hartuko dutenik telebistako azpidatziak egunero irakurtzeko lana.

Helduentzako produktuak izan ditugu gogoan orain arte; izan ere, inork gutxik jartzen baitu zalantzan haur euskaldunek euskarara bikoiztuta ikusi behar dituztela *Shin Chan*, *Dragoi Bola*, *Kiteretsu*, *Doraemon* eta abar. Haurrei euskaraz eginez erakusten diegu hitz egiten; gero, eskolan, idazten eta irakurtzen ikasten dute; eta hamabi-hamalau urterekin «kaixo eta agur» esanda amaitzen dituzte euskararekikoak. Eta behin erabiltzeari utzita, zaila zaie asmatzen euskaraz nola jolastu

behar duten, nola landu harremanak, nola maitatu... Bikoizketak ahozko erregistroak lantzen ditu, baina nerabeei zinemako eta telesailetak ere eskaintzea erabaki dugu. Zein da hor azpian ezkututzen dugun diskurtsoa? Ahozko euskara alferrik dugula eta zinema euskaraz bikoiztea dirua botatzea dela?

Gure unibertso ikoniko eta sinbolikoa gero eta gehiago hornitzen da ikus-entzunezkoetatik. Hedabideei aitortzen zaizkien rolak hainbat dira; ereduak zabaltzea da horietako bat. Telebistan formatu eta genero askotako saioak lantzen dira, eta hamaika komunikazio-ekintza erakusten. Zinemak eta telebistak pentsatu adina egoeraren aurrean jartzen gaituzte: bizimodu, pertsonaia, erregistro, doinu eta lexiko berezituak ezagutzeko parada daukagu. Zergatik ukatu nahi diogu, orduan, espazio hori bikoizketari?

Azkenaldian, eta krisi latz hau dela-eta, inoiz baino ozenago esaten ari gara badela bikoizketa baztertzeko argudio sendo bat: film bat bikoiztea baino askoz merkeagoa dela azpidaztea. Askoz ere. Hainbeste ze, ikus-entzunezko itzultzaileen lan-esparrua konkistatzeko deia zabaldu baita eta edozein hasi da —edozein modutan— azpidatziak egiten eta sarean jartzen. Hori bai, dena doan. Eta azpidatzion kalitateak gutxi inporta.

Azpidazketa ez da bikoizketaren alternatiba. Eta euskaraz propio sortutako produkzioa ere ez. Hiru gauza dira. Bakoitzak ditu bere ezaugarriak, bere esparruak... Euskarak ez du prestigiorik, hori da kontua. Bestela, ez genuke arazorik izango film bikoiztuak, azpidatziak eta propio euskaraz sortuak, denak eskatzeko eta denetarik ikusteko.

Euskal kulturari dagokion zentralitatea aitortzekotan, EITBk berak hizkuntzari eta komunikazio-esparruari begiratu eta estrategia argiak planteatu beharko lituzke hiru jarraibideok non eta nola baliatu eta sustatu behar dituen zehazteko. Ikus-entzunezko ekoizpen interesgarriak eta audientzien erakargarriak bilatzea eta bultzatzea da EITBren funtsa. Izan ere, gaur ez da falta telebistagintzan aritzeko euskal profesionalik, eta 30 urteotan metatutako esperientzia ezin du zulo beltz batek irentsi.

5. Erreferentzia bibliografikoak

- Agost, R. (1999): *Traducción y doblaje: palabras, voces e imágenes*, Ariel Practicum, Bartelona.
- Andoaingo Udala (2004): *Ramon Labaien elkarrizketa. Euskal Telebista, hutsean sortua*, Andoaingo Udala, Andoain.
- Arana, E. (2004): *Programaziogintza irati-telebistan*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.
- Aranguren, Tx. (1997): "Telebista eta bikoizketa", *Jakin*, **99**, 65-70. Interneten eskuragarri: <<http://www.jakingunea.com/50urte/autoreak/A.html?#ARANGUREN,%20Txiliku;%20EGUZKITZA,%20Jesus;%20ZUBIZARRETA,%201%C3%B1aki>> [azken kontsulta-eguna: 2012-VII-25].
- Aranzabal, J: *Faroa*, <<http://www.goiena.net/blogak/faroa/218>> [azken kontsulta-eguna: 2012-VII-25].
- Barambones, J. eta Zabalondo, B. (2006): *Ikus-entzunezko itzulpena*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.

- Casetti, F. eta di Chio, F. (1999): *Análisis de la televisión*, Paidós, Bartzelona.
- Chaume, F. (2001): “Los códigos de significación del lenguaje”, in J.D. Sanderson (arg), *¡Doble o nada! Actas de las I y II Jornadas de doblaje y subtitulación*, Universitat d’Alacant, Murtzia, 45-57.
- , (2004): *Cine y traducción*, Cátedra, Signo e Imagen, Madril.
- Díez Urrestarazu, R. (2003): *ETB: el inicio de una nueva era*, Euskal Irrati Telebista, Bilbo.
- Eguzkitza, J. (1997): “Telebista eta bikoizketa”, *Jakin*, **99**, 71-77, Interneten eskuragarri: <<http://www.jakingunea.com/50urte/autoreak/E.html?#EGUZKITZA,%20Jesus;%20ARANGUREN,%20Txiliku;%20ZUBIZARRETA,%20I%C3%B1aki>> [azken kontsulta-eguna: 2012-VII-25].
- , (2007): “Bikoizketa, hizkeraren lantegia”, in B. Zabalondo (arg.), *Euskarazko Bikoizketaren inguruko jardunaldia. Monografia*, EIZIE, Donostia, **34**, 13-30, Interneten eskuragarri: <<http://www.eizie.org/Argitalpenak/Senez/20080222/eguzki>> [azken kontsulta-eguna: 2012-VII-25].
- Eusko Legebiltzarra (1982): “5/1982ko Legea, maiatzaren 20koa, Euskal Irrati-Telebista Herri Erakundea sortzeko”, Interneten eskuragarri: <http://www.parlamento.euskadi.net/pdfdocs/leyes/ley19820005_t_eus.html>.
- Etxebarria, I. (1994): “Doblaje y subtitulación en Euskal Telebista”, *Trasvases culturales: literatura, cine, traducción*, **1**, 191-197.
- Gambier, Y. eta Suomela-Salmi, E. (1994): “Subtitling: A type of Transfer”, *Trasvases culturales: literatura, cine, traducción*, **1**, 243-252.
- Gottlieb, H. (2001): “In Video Veritas: Are Danish Voices less American than Danish Subtitles?” in R. Agost eta F. Chaume (arg), *La traducción en los medios audiovisuales*, Universitat Jaume I, Castelló de la Plana, **7**, 193-220.
- Ibañez, J. L. (1993): *La sociedad pública de televisión Euskal Telebista: orígenes y desarrollo (1982-1992)*, Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea UPV-EHU, doktore-tesia, Bilbo.
- Larrinaga, A. (2007): “Euskarazko bikoizketaren historia”, in B. Zabalondo (arg.), *Euskarazko Bikoizketaren inguruko jardunaldia. Monografia*, EIZIE, Donostia, **34**, 83-103, Interneten eskuragarri: <<http://www.eizie.org/Argitalpenak/Senez/20080222/larrina>> [azken kontsulta-eguna: 2012-VII-25].
- Lambert, J. (1994): “Ethnolinguistic Democracy, Translation Policy and Contemporary World Order (Dis)order”, *Trasvases culturales: literatura, cine, traducción*, **1**, 23-36.
- Lekuona, L. (1994): “Entre el doblaje y la subtitulación: la interpretación simultánea en el cine”, *Trasvases culturales: literatura, cine, traducción*, **1**, 279-286.
- Mayoral, R. (1993): “La traducción cinematográfica: El subtulado”, *Sendebarr*, **4**, 45-68.
- , (2001): “El espectador y la traducción audiovisual”, in R. Agost eta F. Chaume (arg), *La traducción en los medios audiovisuales*, Universitat Jaume I, Castelló de la Plana, **7**, 33-46
- Mendiguren, X. (1995): *Euskal itzulpenaren historia laburra*, Elkar, Donostia.
- Nor Ikerketa Taldea (2000): *Hedabideak eta Euskal Herria*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.
- Oñederra, L. (2005): “Film-bikoizketaren kontra”, *Diario de Noticias de Álava*, 2005-V-17, 72. or.
- Otermin, J.M. eta Díez Unzueta J.R. (2006): *EITB 1982-2007: Hegaldi-kronika*, EITB, Donostia.
- Romero-Fresco, P. (2010): “Standing on quicksand: hearing viewers’ comprehension and reading patterns of respoken subtitles for the news”, in J. Díaz Cintas; A. Matamala eta J. Neves (arg.), Editions Rodopi BV, Amsterdam/New York, **33**,

- Santamaria, L. (2001): *Les referències culturals: aportació informativa i valor expressiu. El subtítulat*, doktore-tesia, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan aurkeztua.
- Torrealdai, J.M. (1985): *Euskal Telebista eta Euskara*, Elkar, Donostia.
- Zabalbeascoa, P. (2001): "El texto audiovisual: factores semióticos y traducción", in J.D. Sanderson (arg), *¡Doble o nada! Actas de las I y II Jornadas de doblaje u subtitulación*, Universitat d'Alacant, Murtzia, 113-126.
- Zabalondo, B., (2005 a): "Bikoizketa euskaraz", *Trasvases culturales: Literatura, cine, traducción*, **4**, 297-305.
- , (2005 b): «Euskal nerabeak eta Euskal Telebista», *Jakin*, **151**, 71-94, Interneten eskuragarri: <http://www.jakingunea.com/50urte/urteak/2005.html> [azken kontsulta-eguna: 2012-VII-25].
- Zubizarreta, I. (1984): "Euskal itzulpena komunikabideetan", *Senez*, **1**, 63-67, Interneten eskuragarri: <<http://www.eizie.org/Argitalpenak/Senez/19840101/zubizarreta>> [azken kontsulta-eguna: 2012-VII-25].
- , (1997): "Telebista eta bikoizketa", *Jakin*, **99**, 78-84, Interneten eskuragarri: <<http://www.jakingunea.com/50urte/autoreak/Z.html?#ZUBIZARRETA,%20I%C3%B1aki>> [azken kontsulta-eguna: 2012-VII-25].
- , (2007): "Euskarazko bikoizketa – Topaketa", in B. Zabalondo (arg.), *Euskarazko Bikoizketaren inguruko jardunaldia. Monografia*, EIZIE, Donostia, **34**, 31-49, Interneten eskuragarri: <<http://www.eizie.org/Argitalpenak/Senez/20080222/xubi>> [azken kontsulta-eguna: 2012-VII-25].

